

XVI. mendeko erresistentziak

Peru Iparragirre

Mila Salterainen (Durango, Bizkaia, 1955) bigarren nobela da *Azeri-dantza* (Txalaparta, 2017). Joan den urte amaieran ikusi zuen argia, Durangoko Azokaren bezperetan. Bere lehen liburua bezala, eleberrri historikoa da hau ere. XII. mendean kokatuta zegoen *Erresumaren ilusentia* (Txalaparta, 2014), XVI. mendeko lehen urteetan hau, 1512ko Nafarroako Erresumaren inbasioaren garaian, hain zuzen ere. Biek ala biek dute Durangaldea gertaleku.

Tabiran –Durango hiria gaur egun– abiatzen da kontakizuna, eta Osantza Aranguren protagonistaren nondik-norakoak jarraituz ematen du Gaztelak Nafarroaren aurka ekindako gerrak Durangaldea izan zituen ondorioen berri. Gaztelako koroaren aginduetara Nafarroari eraso be-

harrean Nafarroako Erresuma defendatzeko borrokan aritu ziren pertsonaia batzuen berri ematen du nobelak, hainbat pertsonaia eta gertakari historikotan oinarrituta.

Nobela mardula da *Azeri-dantza*, dokumentazio lan handian oinarritzen dena, eta eleberraren baitako istorioek orduko bizitzaren berri izateko balio dute: egoera sozioekonomikoa, ohitura eta



'Azeri-dantza'

Idazlea: Mila Salterain.
Argitaletxea: Txalaparta.

tradizio kultural eta erlijiosoak... Behe Erdi Aroko azken mementoetako gizartearen funtzionamendua ageri da liburuan, Osantzaren, 20 urte inguruko emakume gazte bizkorren, perspektibatik.

Hainbat hari narratibok zeharkatzen dute eleberria: Osantza Aranguren protagonistaren eta Tabirako alkate Martin Arteagaren arteko harremana da bat; Nafarroako konkista eta haren aurkako erresistentziaren antolaketa bestea; Funesko Petrik XII. mendean egin zuen Iruñeko Biblia ilustratu heretikoaren –eta Arteaga eta Aranguren familien– misterioarena bestea. Horiak eta beste hainbat azpi-trama txirikordatzen dira Erdi Aro amaierako egunerokotasuneko gorabehera eta tirabirekin. Horrekin lotuta, mamu baten gisa ageri da inkisizioa eleberrian zehar, lauso hasieran, baina amaierarako oso argi, Osantzak egiaz gertatutakoaren berri izandakoa. Gaztelaren eta Elizaren –eta, zeharka, beste hainbat botere faktikoren– errepresioaren tresna gisa.

Idazkerari dagokionez, aipagarria da Salterainen erabiltzen dituen hizkuntza eta hizkeren aberastasuna. Hainbat elkarrizketa

eta gogoeta bere horretan ematen ditu, izan garaiko gaztelaraz, euskalki desberdinetan edo latinez –azken honetan testuen transkripzioak, batez ere–, eta bestelakoan euskara batua darabil gehienbat, garaia eta inguruarri dagokien lexiko berezituaz jantzia.

Eleberrian barneratzea kostatu zaidan arren –pertsonei, lekuaren eta garaia erantzuten patxadatsuari tramaren geldotasuna gehitzen zaio–, atalez atal errime egiten du aurrera istorioak. Zalantza izan dut pasarte batzuetan hainbat xehe-tasun ematea ezinbestekoa ote zen, data, datu eta bestelako informazio konkretuak –istorioa historian kokatzen dutenak– eritimoa balaztatzen baitute tarteka. Trama gidatzen duen intriga sortzen duen tentsioak amaiera arte eusten dio, ordea, bukaeran korapiloak askatzen direnean istorioa osotasunean ulertzeko beharrezko informazioa ematen delarik, irakurleari kontakizunaren irudi osoa erakutsiz. Merezki du iraganeko garai eta lekuetara itzultzeko indarra egiteak, liburua kontaktuen duen istorioa ez baita soilik XVI. mendeaz ari, orainaldiaz ere ari da.



'Europa, Barandiaran eta baloreak'

Egilea: Askoren artean. **Argitaratzailea:** Jose Miguel de Barandiaran Fundazioa.

Barandiaran hil zeneko 25. urteurrenaren harira, 2016an eginiko ekitaldietako hainbat hitzaldi eta ekarpen biltzen ditu liburua, tartean, Josemari Velez de Mendizabal, Argitxu Camus, Asier Barandiaran, Ixone Fernandez de Labastida, Xabier Irujo eta Gaspar Martinezen hitzak.



'Julene Azpeitia 30. ipuin lehiaketa'

Egilea: Hainbat artean.
Argitaratzailea: Zumaiaiko Udala.

Julene Azpeitia sariketarako 30 urte egin zituen iaz, eta, ohi bezala, irabazleen narrazioak liburuxka batean eman dituzte argitarara. Idoia Fraile Ugalderekin *Erreka bila*, Ipar Alkain Kazaboneren *Garbiketa eguna*, eta Angel Gallo Fernandezekin *Xant jaunaren azken borroka* daude irakurgai.



'Mundu ikuskerak euskal narratiba garaikidean: modernitatearen krisitik postindustrialitatearen promesera'

Egilea: Gorka Mercero. **Argitaratzailea:** Labayru Fundazioa / Zornotzako Udala.

Euskal narratiba garaikidean ikuskerak aletu ditu egileak liburuan, esentzialismotik ez-esentzialismorako ibilbidea aztertuz.

Ohean egoteak morboa areagotzen du



Imanol Mercero

Nerabe-literaturan kokatzen da *Maren*, maitasuneko azpi-sailean hain justu, eta bilduma baten lehen atal autonomoa da. Bigarren atala, *Libe*, jada kalean da.

Narrazio arin bat da, eta, dituen ehun orrialde pasatxoek kontrakoa aditzera eman balezake ere, inondik ere ez duena nobela baten giharririk.

Elkarrizketek hartzen dute obraren luze-labur kasik guztia, eta 29 ataleko egiturak irakurketa telegrafikoa proposatzen du. Idazkera soila du, sintaxi eta lexi-

ko eskuraerrazean emana. Kontaketa korapilorik gabekoa da, lineala, atzera edo aurrerako jauzirik gabea. Pertsonaiak gutxi dira, dozena erdi izen, eta bakoitzak bere topikoari eusten dio: karikatura modukoak dira, narrazioa sendo baten faltan (edo karaktereak eraikitzeke bestelako bali-



'Maren'

Idazlea: Alaine Agirre.
Argitaletxea: Erein.

bideen faltan). Berez arina izateko joera duen literatur korrontekoa izanik ere, pertsonaiak gehixeko lantzea edonork eskertzeko modukoa izango zela iruditzen zait.

Kontaketaren mamia nerabeen arteko maitasun gorabeheretan dago, bere ezaugarriak ohikoetan egon ere: «gustatzen zait baina ez dakit nola adierazi», «nik nahi dudana eta berak nahi duena bat ote dago?», «mutilek maitasuna eta sexu-grina nahasten dituzte», «neskak zerbaite gehiago-bera bila gabiltza», «maitasun heterosexualetik kanpo aritzea beti da lotsaizun», «zer sentitzen du dan baneki...». Agian ekarpenik interesgarriena da galdera hauek nesken homosexualitateari buruzko hausnarketaren aurkitutako ditugula, gaia gure gizartean hizpide izaten hasi den garaioan.

Narrazioa anonimoa da, printzipioz orojakile tipikoa izan beharko lukeena, baina eskapatzen zaizkidan arrazoak direla medio, bere rola zuzen jokatzeko ez duena: batzuetan, protagonistaren *alter ego*-a ematen du, une-unean zer esango inprobisatzen ariko balitz bezala. Mesfidantza sortzen du, orojakile arrunt baten eskumenak dituela-

ko (honek hala pentsatzen du, hark ez daki beste hau...), baina, aldi berean, kontaktaren beharrezko araber bere iritzia aldatzen aritzen delako. Azkar eta labur esanda, kontaktaren itzulgingueren beharretara bahituta agertzen da, narrazioa orojakileek behar duten *guztiaren gainetik* jarrera galduta, eta protagonistaren emozioen arabera mintzo zaiguna, protagonistarekiko lotura hori justifikatu gabe.

Narrazioaren lerratze hau nabaritzen da ere erabiltzen duen hizkeran, ez baita neutroa, baizik protagonistaren hizkeraren oso parekoa: kalekoa, informala eta, tarteka, baldarra, erdarakadak botatzen dituena.

Igual gaizki uler liteke, eta iritzia garbiro emango dut: eragozpenak ez zaizkit sortu genero honen aurka ezer dudalako (ezta bestelako generoen aurka ere, gustuak gustu, orojalea bainaiz, bide batez esanda); aitzitik, iruditzen zait genero *arinenetan* elementu guztiak fundamentuz eraikitzea ariketa literario inoiz baino zailagoa dela, eta agian horregatik ezin izan dela emaitza borobila lortu, kasu jakin honetan.